

FUNTSEZKO JARDUERAK

Proiektuak ondo funtzionatzeko, enpresak funtsezko jarduera batzuk burutu behar ditu. Mugikorrerako eguzki-panelarekin integratutako zorroa kontuan hartuta, beharrezko jarduerak hauek dira:

- **Ekoizpena** zorroa egitea da, eguzki panela eta bateria modu egokian integratuta. Horretarako, material arinak eta erresistenteak erabiltzen dira, zorroa eroso eta iraunkorra izan dadin. Gainera, kalitate kontrolak egiten dira, bezeroek ondo funtzionatzen duen eta fidagarria den produktua jaso dezaten.
- **Arazoak konpontzea:** Proiektuak aurrera egiteko, enpresak arazo teknikoak eta logistikoak konpondu behar ditu. Adibidez, bateria ondo kargatzen ez bada, eguzki-panelak energia behar bezala jasotzen ez badu, edo zorroaren materiala ez bada nahiko indartsua, enpresak berehala irtenbideak bilatu beharko ditu. Horrela, bezeroek produktuarekin duten esperientzia hobetzen da eta marka konfiantzazko bihurtzen da
- **Plataforma edo sareko jarduerak:** Bezeroekin harremanak kudeatzea eta informazioa ematea funtsezkoak dira. Hori online kanalen bidez (webguneak, sare sozialak) edo aurrez aurreko salmenta eta zerbitzuetan egin daiteke. Jarduera horiek laguntzen dute bezeroek produktuaren onurak ulertzen, nola erabili erakusten, eta horrek salmentak handitzen laguntzen du.
- **Kanpoko enpresen laguntza:** Jarduera batzuk beste enpresen esku utzi daitezke, adibidez, eguzki-panelen fabrikazioa edo zorroaren materiala hornitzea. Hala ere, ezin da besteen esku utzi produktuak funtzionatzeko behar den ezagutza teknologikoa, hala nola eguzki-panela bateriarekin integratzea eta karga-sistema seguru bat sortzea; hori gure enpresaren esku egongo da.